

# TELESAILAK IDATZI EGITEN DIRA



Berez da bulegokoa eta itzalpekoa gidoilariaren lana. Zuzendariak emango ditu elkarrizketak; aktoreek beteko dituzte pantaila eta –halakorik balego– alfonbra gorriak; eta gidoilaria –beste asko bezala– bigarren planoan geratuko da, kredituetako izen-abizen erdi ezezagun, beste ideia bat garatzen, argia ikusiko duen jakin gabe. Dena ez da ilun, hala ere: zirrara berezia sortzen du telebista piztu eta norberak idatzi edo irudikatutakoa pantailan ikusteak. Halakorik lortzea, ordea, zaila da, eta zer esanik ez ikus-entzunezko fikziorik ia ez duen Euskal Herri honetan. Sarri ezkutukoa den lan hori hobe ezagutu nahian jo dugu Yurre Ugarte eta Iñigo Lezertuarengana.



Lander Arretxea Bereziartua  
@larretxea

ETBn fikzioa lehenengoz egiten zeneko garaiak ondo ezagutzen ditu Yurre Ugarte idazle eta gidoilari tolosarrak. Betidanik izan du gustuko idaztea, eta kazetaritza ikasketak hasi bazituen ere, Leioan espezialitaterik ez zegoela-eta Londresera joan zen ikus-entzunezkoak ikastera. Han hasi zen bere lehenengo lanak idatzi eta zuzentzen. Itzuli zenerako, film luze baten gidoia zekarren besapean. Orio Produkzioak-eko Martin Ibarbiarengana jo zuen proiektu horrekin, eta hark, kontra-proposamena bota zion, sitcom baterako ideia garatu eta idazteko eskatuz. Huraxe izan zen bere lehenengo gidoilari lan profesionala: *Penelope-Enea* (1992), ETB1en.

Ikasteko aukera paregabea izan zen arren, baldintzak ez ziren onenak izan: “Hasiberri ausart batek bakarrik onartzeko modukoak izan ziren lan-baldintzak, hilabete bakarrean 10 gidoi idatzi behar izan baintuen. Modu horretan, telesaila B mailakoa aterako zaizu, ezinbestean”. Geroztik beste proiektu askotarako egin du lan, *Goenkalerentzat*,



marrakzi bizidunetako film luzeetarako, eta baita Tele5, Telemadrid edo TV3 telebistentzat ere. Orotariko bizipenak izan baditu ere, uste du askotan gidoilariaren lanari ez zaiola behar beste garrantzia aitortzen, nahiz eta oso zaila den emaitza on bat lortzea idazketa eta ideiarekin garapenari denbora eman gabe. “Ez baduzu ulertzen gidoi bat idazteak denbora eskatzen duela, ez duzu ulertzen ikus-entzunezko lan bat zer den. Aurreproduktiorako denbora behar da, idazteko denbora behar da. Industria bat eraiki nahi baduzu, hori ere prozesu industrialaren barruan integratu behar duzu, eta noski, ordaindu. Hain bistakoa dirudien hau ez da beti aintzat hartzen”.

### Zenbat balio du ideia batek?

Ugartek baino hamarkada bat geroago ezagutu zituen telebistaren barrunbeak Iñigo Lezertua gidoilari mutrikuarrak. 22 urterekin hasi zen lanean, Pausokan proba egin eta berehala hartu zutenean. *Euskolegas* eta *Vaya Semanita* saioetatik

igaro ondoren, Madriletik aritu da hiru urtez Espainiako Estatuko zein nazioarteko hainbat telebistarentzat ideiak eta gidoiak garatzen. Gidoilariaren lana idaztea baino askoz gehiago dela dio: “Ikertu egin behar duzu, beste herrialdeetan zer egiten den begiratu, egokitu zure ideiak telebista bakoitzak nahi duenera, eta gainera, zure ideia saltzen jakin”. Horrek guztiak lan eta denbora asko eskatzen du, baina dioenez, oro har euskal ekoiztetxeek ez dute ideien garapenean inbertsiorik egin nahi, eta beraz, etxetik eta bermerik gabe egin beharreko lana izaten da askotan. Gero kasurik onenean, ideia ona bada, erosi egingo diote. “Baina, atzean dagoen lan guztia kontuan hartuta, zenbat balio du ideia batek?”, galdetu du Lezertuak.

*Eskamak kentzen* telesailaren sortzailea eta gidoilari nagusia ere bada: “Oso aberasgarria izan da, baina zaila ere bai: denborarik ez duzu inoiz telebistan: beti da erlojuaren kontrako lana, aldaketa asko egin behar dira... Telebista, edo asko gustatzen zaizu, edo ez duzu



aguantatzen. Nire kasuan bokaziozkoa da; asko ikasi eta gozatzen dut proiektu bakoitzarekin”.

### **Martxan egotearen garrantzia**

Batak zein besteak argi du talentua badagoela euskarazko fikzioan maila oneko gauzak egiteko. Baina horretarako, aukerak eman behar dira, baita hanka sartzeko aukera ere. Lezertuak uste du gutxi direla telebistako erritmoan lanean ari diren euskal gidoilariak, eta horrela oso zaila dela profesionalak ikastea, trebatzea... “Zu txirrindularia bazara, eta luzaroan ez baduzu lehia-tzen, ez duzu behar besteko erritmorik izango. Telebistarekin gauza bera gertatzen da, ez bada fikziorik sortzen, zailagoa izango da gerora ere kalitatezko lanak egitea”.

Dioenez, hutsune horrek gidoilari asko beste ibilbide profesional batzuk hartzera eraman ditu: irakaskuntzan, ikus-entzunezko sektorearen beste alor batzuetan, ostalaritzan... Edo beste herrialde batzuetan lan egitera. Horrek

zailtzen du pertsona horiek gero, premia dagoenean, telebistara itzuli ahal izatea.

Yurre Ugartek aldiz, baratzearen metaforarekin azaltzen ditu ondoen fikzio gabeziaren ondorioak: “Gidoilari, sortzaile emankorrak nahi badituzu, baratzea landatu, erein, ureztatu, edo hitz batean, zaindu behar duzu. Lan egiteko aukerak eman behar dituzu eta baldintza egokiak jarri. Eta fruitu sendoak lortuko dituzu. Bestela, nekez. Gainera, monokultiboak edo soilik emaitza ekonomikoengatik baratzea ustiatzeak, irudimenezko fruituen agortzea dakar”.

### **Euskara, bigarren mailan**

ETBeko fikzioaren idazketaz arituz gero, heldu beharreko beste hari bat da hizkuntzarena. Euskaraz eskaintzen diren telesailetan ere, gidoiaren zati bat behintzat, gaztelaniaz idazten da maiz.

*‘Goenkale’ izan zen urte askoan gidoilariak trebatzeko eskola. ‘Eskamak kentzen’ berriz, ETBk egin duen azken telesailetakoa bat. Nolanahi, fikzioa herren dabil euskal telebistan eta gidoilariak ez dute etxean non lan egin.*

» **Euskaraz eskaintzen diren ETBko telesailetan ere, gidoiaren zati bat behintzat, gaztelaniaz idazten da maiz**

Yurre Ugartek argi du zer gertatzen den: “Euskara bigarren mailan geratzen da hain justu gizarte honetan, gehienetan, bigarren mailan geratzen den arrazoi berberetatik: lan katean euskaraz ez dakiten profesionalak daudelako, eta ikus-entzunezkoetan, askotan, piramidearen goiko aldean gainera”. Gidoilari

bakarra izan denean, euskaraz idatzi du gidoia Ugartek, baina *Goenkalen* eman zituen urteetan, adibidez, ez zen horrela izan: “*Goenkalen*, ni aritu nintzen aurreneko urteetan, bukaerako gidoia euskaraz zen. Elkarrizketak, azken finean. Gidoiaren beste atal guztiak ez: argumentua, eskaletak, tratamenduak...”. Gaur egun aldiz, lantalde profesional euskaldunak osatzea posible dela dio, badagoela talentua eta esperientzia.

Uste berekoa da Lezertua, nahiz eta (ekoizlea madrildarra zela-eta) berak ere *Eskamak kentzen* gaztelaniaz idatzi zuen. “Bertsio definitibo gaztelaniaz ateratzen zen, eta itzuli egiten zuten gero. Baina sentitzen nuen prozesu horretan zerbait galtzen zela, nahiz eta itzultzaileek oso lan ona egin; emaitza ez zela, zehazki, nik nahi nuena”. Badu, behingoz, hasi eta buka euskaraz aritzeko gooa.

#### Nazioarteak salbatuko gaitu?

ETBko goi-karguen azalean ere jarri ditugu gidoilariak, euskal telesailak piztuko lituzkeen formularen bila. Ugartek uste du baliabideen ikuspegitik gero eta

#### » YURRE UGARTE:

“Sortzaile emankorrek nahi badituzu, baratzea landatu, erein, ureztatu, edo hitz batean, zaindu behar duzu. Lan egiteko aukerak eman behar dituzu”

#### » IÑIGO LEZERTUA:

“Baditugu kokapen interesgarriak, gertaerak, zer kontatua... Ez dago aitzakiarik. Jendea martxan jarri behar da, dinamikak sortu, eta marka propio bat garatu”

errazagoa dela lan txukunak egitea, eta horrek, teoriarik, telesail eta film gehiago egitea ekarri behar lukeela. Horregatik haserrarazten du ETBn horren fikzio gutxi aurkitzeak: “Azken finean, edo guk kontatzen ditugu guk sortutako istorioak, edo beste batzuek kontatuko dizkigute, bai geureak eta bai haienak”. Uste du, kontrakoa esaten den arren, egon badaudela fikzioa egiteko baliabideak, eta gaur egun ETBk duen audientzia maila ikusita, dena dagoela irabazteko.

Lezertuari aldiz, iruditzen zaio Danimarkaren adibidea jarraitu behar litzatekeela: bost miloi biztanleko herrialdea izanagatik, nazioartean arrakastaz emititzen diren hainbat thriller egin dira bertan nordic noire estilokoak, *The Bridge* kasu. “Guk hemen, oso toki ikusgarri eta bereziak ditugu, hiriburuetatik gertu gainera, eta leku paregabea da grabaketak egiteko. Baditugu kokapen interesgarriak, gertaerak, zer kontatua... Ez dago aitzakiarik. Jendea martxan jarri behar da, dinamikak sortu, eta marka propio bat garatu, nazioartean ere interesgarria izango dena”. ■



## Kalean da irail-urriko

# aizu!

- Gasteizko kultura, kartografiatua
- Leo Turiño, AEK Jendea
- Reborn panpinak, errealismoaren muga
- Biba!, euskal kulturaren eragiten
- DJ Bull, arin-arin

**Urte osoko harpidetza** (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**  
[aizu.eus](http://aizu.eus)